



sagardotegiak sagardo gipuzkoa

Saizar, Izeta eta Aburuza Gipuzkoako Foru Aldundiko sagardo txapelketako finalean

2014-06-05 | Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea

Larunbatean jokatu da Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duen sagardo txapelketako finala, Euskal Gastronomi Anaiartean, eguerdiko 12:00etan. Sei sagardotegitako sagardoa izango da bertan: Saizar, Izeta, Aburuza, Gaztañaga, Gartziategi eta Altzueta.

Gipuzkoako Foru Aldundiko sagardo txapelketako irabazlea jakiteko pauso bakarra falta da, finalekoa. Sei sagardotegi izango dira bertan lehian, horietan hiru Gipuzkoako Sagardogileen Elkartekoak: Usurbilgo Saizar, Aiako Izeta eta Adunako Aburuza. Horiekin batean izango dira Andoaingo Gaztañaga, Astigarragako Gartziategi eta Hernaniko Altzueta sagardotegia. Aurtengo edizioan 30 sagardotegik hartu dute parte txapelketan.

Urteroko moduan, ekaineko lehenengo larunbatean izango da finala, Euskal Gastronomi Anaiartean, eguerdiko 12:00etan.